# Denbora-



## 1 Dardoak

Aspaldian ez zuten dardo partidarik egin Mirenek eta Julenek. Etxean entrenatu ote dira? Ea nork irabazten duen gaurko partida.




## 2 Osatu irudia

Zer moduzko marrazkilaria zara? Ea osatzen duzun Eiderrek erdizka utzi duen irudia.



## 3 Osatu hitzak

Bederatzi hizki aukeratzeko esan dio Iñaki irakasleak Amaiurri. Ea zenbat hitz sortzen dituzun hizki horiekin.



# -pasak

## 4 Mamuen mezua

Mamu ugari topa dituzte gaztelu zaharrean. Mezu sekretuak dituzte, gainera. Lotu kolore edo zenbaki bereko mamuak, eta osatu hitza




**Erantzunak:** **1.-** Mirenek eta Julenek 1.225 puntu egin dituzte denera. Berdinketa egon da, beraz. **4.-** Sustatzailea, herritartasuna, onuragarria, makilakada, gereziondo eta gorroto. **5.-** D eta E.

## 5 Bikiak

Udaberrian gaudenez, eguzkiak marrazten aritu dira haurrak eskolan. Bakoitzak bere eguzkia margotu du, baina bi berdin-berdinak dira. Zein?




# Jolasa

## Pasa baloia!

Jokalari batek besteari pasa behar dio baloia, baina eskuak erabili gabe. Moldatuko al zinateke? Nola?

**1** Gauzak lurrera erortzera behartzen duen naturako indarra da grabitatea. Grabitateari aurre egiteko gai al zarete? Denen artean, ziur baietz! Egin dezagun proba! Jar zaitezte jokalari guztiak lurrean eserita, biribil bat osatuz. Jaso hankak gorantz.



**2** Hartu baloi handi bat, eta jarri biribilaren erdian. Jokalari bakoitzak alboko lagunari pasa behar dio baloia, baina baloiak ezin du lurra ukitu. Oinekin bakarrik hel daiteke baloia; ezin da hartu eskuekin!





**3** Baloia biribilaren azken jokalariarengaino heltzen denean beteko duzue helburua. Helburua betetzean, saia zaitezte baloi txikiagoekin. Ez da horren erraza, ezta?